

BALEIKE

200 pta.

58. zenb.



- Ze berri:
Termitak
Musika Eskola
jaten ari dira
- Erreportajea:
Dantza
Taldeak agur
esatea
erabaki du
- Zumaiakok
ez du lortu
Preferente
mailara
igotzea

- **Udal Igerilekua
erabiltzeko prest**

Udal
hauteskudetako
16 orrialdeko
gehigarri berezia

25 urtetik
gorako esperientzia

AUTOS ZUMAIA

AUTO-KONPONKETAK

INSTALAZIO BERRIAK
ESTAZIOKO INDUSTRIALDEAN

- Mekanika orokorra •
- Direkzioaren lerrokatze elektronikoa •
- ITV aurreko azterketa •
- 2. eskuko autoen erakusketa •

UROLA PLAZA 3-5 TEL. 943 86 14 85

5. urteurrena ospatzeko...

BALAIKE TXOUA

EKAINAK 25 OSTIRALA
GAUEKO 10 ETAN
AITA MARI ZINEAN

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faksa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue

Uxua Ostolaza

Itziar Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre

Esther Aizpurua

Eneko Dorronsoro

Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Igor Uranga

Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub

taldea, Ingurugiro tailer

eskola, Miriam Romatet,

Jon Manzisidor,

Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Ion Manzisidor

Argazkiak

Jonathan Bernal

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Ixiar Uranga

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza

(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Demokraziak baditu milaka aurpegi



Gorka Zabaleta

Demokrazia, herriaren agintea. Baina baita onak eta gaiztoak bereizteko ezartzen den muga: "ni demokrata eta tolerantia, zu biolentia eta faxista". Edo bertsio modernoago hau: "ni demokrata eta tolerantia, zu abertzalea eta faxista". "Ni jainkoa eta zu deabrua". Hori bai, muga non kokatu beti berdinak erabakitzen du, "ni demokrata eta tolerantia".

Udal hauteskundetan islatzen omen da hobekien demokraziaren esentzia. Herriaren agintea inon baino nabarmenagoa omen da, kontrol zorrotza ezartzen dutelako agintean dagoen herkidearen gain. Baina mugaren teoria indarrean jarri nahi duenik ez da faltako aurten. PPri bost axola herriaren agintea; garrantzitsuena "abertzale, biolento, faxista eta deabruen" aurkako gurutzada da. Horregatik berdin zaie nork emango duen aurpegia Zumaian, Bermeon edota Amurrion. Berdin zaie hautagaiak Burgos, Santander edota Galiziatik ekarri. Berdin zaie gure herriak zer behar duen ba ote dakiten Berdin zaie zumaiarrek hautagai horren aurpegia ezagutzen duten edo ez. Kuestioa da abertzaleok eraikitako egoera politiko berria izorratzea. Horretarako ekarri dituzte berrero aurpegi gabeak. Beraiei berdin zaie; zorionez herritarrei ez.

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udala





GORKA IRIBAR

Itsasoa

*Batzutan bare egoten dena
bestetan mugikorra
eta haserre jartzen denean
izan daiteke hilkorra
horregatik da mariñelena
horren bizitza gogorra
baina bilatzen jakin behar da
barnean duen altxorra
sufritzen jakin duenarentzat
izan ohi da emankorra.*

*Arrain mordoa bistatzen zaigu
kostaldean egunero
baina guztiak galdu litezke
horrela segi ezker
horrez gainera ura ematen
digu litroka urtero
dibertimentu gisan ere bai
pixkat freskatzeko edo
mundua ez zen ezer izango
itsasorik ez balego.*

Usaimenezko mapa

Urtero, San Ferminak iritsita, Iruñeara hurbiltzen gara bertako lagunekin bermuteotxo bat egitera; hala, duela pare bat urte, alde zaharrean, garbiketako kamioiak eskibatuz genbiltzala, ni, nola ez, marmarrean: "jo, hau da kiratsa! Hemen txiza-usaia, han lejia gainezka..." Eta gure lagun horrek "ba begira, nik azken bi urteetan usaimena guztiz galdu dut, ez dut ezer somatzen". Une haietan zorionekoa zela zalantzarik ez (zer kirats!), baina imajina al dezakezue, usaimenik gabe!

Nik, sudur txikia izan arren, betidanik usai kontuetarako zaletasun handia izan dut, eta hori dela eta proposamen bat egingo dizuet, garai hau aproposa da gainera, politiko aldetik jasan behar dugun ikus-entzuteko erasoei ihes egiteko, erabil ditzagun beste bideak, hain ahaztuta dugun usaimenera jo dezagun.

Usaiak garai orotan iristen zaizkigu, baina udaberri-uda garaia ezin hobea da hauek aztertzeke, errezago jasotzen baititugu. Udako usaiak: loreak, nola ez, hondartzako salitre eta eguzki-kremak, melokotoi eder bat, herrikohaizearen ondoko trumoiak kaleak bustitzea... (bale ados, baita marea behean denean Narrondo ibaia, edo gainezka dauden zaborrontziak!)

Bi ariketa proposatuko dizkizuet beraz, oso errazak:

- Usain sailkapena: gustoko usainak, eta ez hain gustokoak (edo nazka ematen digutenak, zeuek ezarri muga). Adibideak: jende gazte gainezka egon den ikasgela edo liburutegi bat uda betean/arrandegi bateko arrain kajak/arrain bera goxo-goxo perexil pixka batekin labean/Estazioko festetan parranda ederra egin ondoren zeure gela biharamunean/okindegietakoko usain epel-goza/elizako usain "izpirituala"? /....

- Usain mapa: herrian pasiatu, eta izendatu usain bat leku ezberdinei, beti ere asteguna edo jaieguna izateak sortzen dituen aldaketekin. Aipa daitezke: Anade elkarte inguruan asteburuero somatzen den usain ederra; igande goizaldeetan alde zaharretako txoko batzuetako "perfumeak", igande arratsaldeetan paolaldeko ibiltarien usain dotoreak, ostegunetako kinkileroak, Itzuruneko usain gazi ederra,...

Tontokeria bat? Bai horixe, baina udan, alferkerian gaudela baditugu zenbait tarte nola bete asmatu ezinekoak... Zeuek ikusi, edo hobe, zeuek usaindu.

MIRIAM ROMATET



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

ΔΙΣΜΑΝ-ΚΟΣ S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK


Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Astilleroak, berriro lanean

Enpresa zuzendaritzak eta langileek akordioa lortu eta untzi berri batean ari dira lanean jadanik

Apirilaren 14an Astilleros Balenciagako langileek grebari ekin zioten, zuzendaritzak eskaintako soldata baldintzak ez zituztelako onartzen. Ia hilabeteko negoziazioen ondoren, bi aldeak akordio batera iritsi eta berriro lanera itzuli dira. Izan ere, Astilleros Balenciaga Estatu Batuetarako untzi berezi bat egiten ari da: urpekuntziak garraiatzeko itsasuntzia.

Midnight Arrow (gauerdiko gezia) du izena, eta New Orleanseko portuan egingo du lan. Petrolio plataformetako hodi edo tuberiak konpontzeko erabiliko da. Tuberia hauek sakonera handiko uretan egoten dira, eta normalean urpekariak konpontzen dituzte. Baina zenbait kasutan, ezinezkoa zaie beherraino jaistea eta orduan erabiltzen dituzte urpekuntziak. Urpekuntzi hauek monitore batzuen bitartez kontrolatzen dira, itsasuntzian dagoen kontrol gela batetik.



60 metroko luzera du, 52 lagunentzako logelak, eta erdian 25 metro koadroko igerileku bat du, urpekarien itsasoratzea erosoagoa izan dadin. Untzi hau egiteko aurrekontua 1850 milioi pezetakoa da.

Untzi honen berrikuntzarik aipagarrienetakoa posizio jakin bati eusteko duen sistema da. Aingurarik gabe, eta sateliteak jasotzen duen informazioari esker, untziak tuberien lerroa jarrai dezake, edota urpekuntziaren posizio berberan mantendu. Sateliteak koordinatuak, haizearen indarra, norabidea eta itsas hondoarekiko posizioaren berri ematen dio ordenagailuari, eta honek eman beharreko aginduak ematen ditu. Lan hau egiteko bi ordenagailu izango ditu untziak, bakoitza 150 milioi pezetakoa.

Gainera, 45 tona altza ditzaken garabia izango du, eta 300 metroko sakoneraraino irits daiteke. Garabi honek 70 milioi pezeta balio du.

Helikopteroentzako plataforma ere izango du, ezinbestekoa baita jendea zein piezak eta materiala garraiatzeko.

Arrantzuntzi Ondarroarako

Gauerdiko Gezia ez da Astilleros Balenciaga egiten ari den lan bakarra. Ondarroatik zenbait arrantzuntzi egiteko agindua jaso dute, 1200 milioiren truke. Jadanik lehenengo biak egiten ari dira.

Kontratu hauei esker, Astilleros Balenciagak lana ziurtaturik du datozen hilabeteotarako, eta bide batez Zumaiako beste hainbat enpresentzako ere bai. ◀



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Udal igerilekuak ireki dira

Inaugurazio ekitaldia maiatzaren 29an egin zen

Azkenean herritarrek udal igerileku berriekin gozatzeko aukera izango dute, maiatzaren 29an egin baitzen zabaltze ekitaldia. Egin diren eta ondoren eraikiko diren bestelako kirol instalazio guztiak kontuan hartuta, Udalak 700 milioi pezeta inguru xahutu ditu proiektu honetan. Udalak diogu, ez baita beste inolako dirulaguntzarik jaso gainontzeko erakunde publikoetatik.

Hainbeste urtetan zumaiarrek desiratu izan duten igerileku estalia azkenean errealitate bihurtu da. Helduek nahiz haur txikiek gozatu ahal izango dute gainera, bi igerileku ezberdin eraiki baitira. Maiatzaren 29an egin zen inaugurazio ekitaldia. Bertan jendetza handia bildu zen, herriko parrokoak bedeinkapena eman zien, dantzariak beren saioa egin ere bai eta ohiturazko zinta mozketa ez zen falta izan.

Igerilekua kiroldegiari erantsirik dago eta modu honetan bi eraikinek bat egingo dute, sarrera eta kontrol gune bakarrarekin. Bere eremua kristalezko zonalde batez inguratua dago, igerileku barrura argia sartzeko erraztasun guztiak ezarriz; hauxe da beharbada, bere ezaugarririk bereziena.

Bestelako ezaugarrei dagokienez, helduen igerilekuak, 25 metroko luzera eta 12,5eko zabalera du, 1,40 eta 1,60 metro arteko sakonera du igerilekuaren bi aldean ertzetan eta toki batzuetan sakonera, 1,80 metrokoa izateraino heltzen da. Haurrenak, bi zati ezberdin ditu: lehena kurbatua da, 30 zentimetroko sakonerakin gehienez ere eta bigarren aldean, errektangulu itxurakoa, sakonera 30 eta 80 zentimetro artekoa da.

Bi aldagela ditu eta bainulariak kontrolatzeko beste gela bat ere bai. Kiroldegi aldera berriz, harmaila batzuk ezarri dira etorkizunean jokatuko diren igeriketa kompetizioetan ikusleek eroso egoteko lekua izan dezaten.

Ekipamendu berriak

Baina igerileku hauetaz gain, ondoan kiroldegi berrituak barneratuko dituen ekipamendu berriak daude. Bi gimnasio, bi sauna, hidromasajea, UVA izpiak eta masajerako gela bat egongo dira; hauez gain, kantxaren aldamenen ere zazpi aldagela eraiki dira: hiru epaileentzako eta besteak futbol zelairako eta pistarako. Kiroldegiaren goiko pisuan berriz, kafetegia

eta jatetxea kokatuko dira, iraila arte irekiko ez diren arren. Handik igerilekua zein kantxa ikusteko aukera dago.

Beraz, Lubaki kiroldegi berritua hiru pisutan banatuta dagoela esan dezakegu: sarrera, eta solairu berean, igerilekuak, behean aldagelak, kantxa nahiz futbol zelairako irteerak eta azkenengo pisuan, goialdean, kafetegia eta jatetxea.

Baina dena ez da hemen amaitzen. Kiroldegiaren kanpoaldean, solarium-az gain, estalperik gabeko kantxa bat, padeleko bi pista eta teniseko beste bat izango dira, denbora gutxi barru egingo direnak. Datorren urtean aldiz, futbol-zelai artifiziala egiteko asmoa dago; gauzak pentsatzen diren bezala joanez gero, 2.000. urteko irailerako erabiltzeko moduan legoke.

Igerileku berri hauekin, Zumaia ondo hornituta geratzen da kirol instalazioei dagokienez eta zonalde beretsuan kokatuak guztiak gainera. Zerbait gehitzekotan, frontoi luze baten beharra da, Zesta Punta Eskolakoei eta gainontzeko beste erabiltzaileei irteera bat egoki bat emateko.

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407




Izurun, 1 Tel. 143224



Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Tel. 861433
Faxa: 861067



Usadioari jarraiki Zumaiako parrokoak bi igerilekuak bedeinkatu eta Rikardo Peña alkateak protokolozko zinta moztu zuen.



Helduentzako igerilekua sei kaletan egongo da banatuta. Inaugurazioko ekitaldian eskoletako hurrek bainu bat hartzeko aukera izan zuten. Alkatea geroxeago ere animatu omen zen, baina gure argazkilariak, beldurtuta edo, ez zuen momentu "historiko" hori jasotzerik izan.



AUTO-ESKOLA




- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018

balezulo
importaturiko errofa eta artisautza



Basadi, 3



Santiago Compañ :

“Atotxan bareak garbitu genituen, jokalariak baloiak bote arraroak egiten zituela kejatzen zirelako”

Desihitrasa: desintsektazioak, desinfekzioak, gasifikazioak, arratoi, termita eta pipien garbiketa. Hala dio Santik luzatu digun txarteltxoak. Forondan egon ziren duela urtebete, eta apiriletik hasita Ubillos jauregian ari dira jo eta fuego bera eta beste langile bat lehenengo bi solairuetako lurra erabat janda zuen termita izurrite bat garbitzen. Lan gogorra omen da, baina polita.

❑ Nondik nora sartu zinen ofizio honetan?

Duela urte mordo bat bere egoitza Galiziako Porriñon zuen Coperceltia enpresaren ordezkari lanak eginez hasi nintzen. Gero Bayer multinazionalera pasatu nintzen, eta azkenik, duela hemezortzi urte, nere kabuz jarri nintzen Donostian. Gaur arte behintzat nahikoa ondo funtzionatu digu.

❑ Zer moduzko ofizioa da?

Lan astun xamarra da, pazientziaz hartu beharrekoa, eta intsektizida usaina gainetik kentzea ere ez da erraza izaten, baina gustatzen zait.

Garbitu ederrak ematen ditugu, eta ondo egindako lanak gustua ematen dizu; gainera zomorroen gorabehera guztiak ezagutzera iristen zara, eta gauza interesgarri asko dituzte.

❑ Zein dira izan dituzuen enkargu aipagarrienak? Katedralen bat...

Katedralik ez zaigu tokatu, baina Atotxa zaharrean egonda nago Bayer-

ekin. Duela hogeit bat urte izango zen. Jokalariak kexu ziren, baloiak bote hil asko egiten zituela eta. Ikuskapena egin eta zelaiaren drenajearen bareak zeudela ikusi genuen. Nonbait zenbaitetan muturra gainazalera atera eta kasualitatez baloiak ematen zienean gertatzen ziren baloiaren estraino horiek. Tratamendua egin eta gutxira bi ligak irabazi zituen Errealak.

Oñatiko alde zahar guztia, elizak, monumentuak... enkargu asko izan ditugu, baina aipagarriena hori izan daiteke.

❑ Zein egoeratan topatu duzue Ubillos jauregia?

Lehenengo bi solairuetako zorua erabat hartuta zeukan termitak. Egur zaharra, inolako tratamendurik jaso gabe jarritakoa eta humedade asko ditu jauregiak, eta horiek dira termitarentzat oinarritzko bizi baldintzak. Seguraski bospasei urtean hor egon da, eta milaka zeuden. Oinarritzko egiturak harrizkoak dituelako salbatu da etxea, termita gai baita denbora

horretan etxe bat erabat hondatuta uzteko. Izatez, egurrezkoa dena, zolua, erortzen hasita zegoen zenbait gelatan.

❑ Zer prozesu jarraitzen duzue termita garbitzeko?

Lehenengo kata egin behar da. Hau da parterik garrantzitsuen, biga, langa, puntal eta zoko guztiak ondo aztertu behar dira, garbiketari ihes egingo dion fokorik gelditu ez dadin. Gero taladroarekin zuloak egin, 'tresboli-lloan' edo hirukiak marraztuaz, eta tako batzuk sartzen ditugu, tako hauetan barrena termitizida injektatzeko. Egur guztian egin behar da hau, eta baita ere estrategikotzat hartzen diren murrutuetan, babes-barrera bat sortzeko.

❑ Posible al da berriro ere azaltzea?

Ez. Bost urteko garantia ematen dugu, baina normalean, tratamendua ondo egin bada 40 bat urtean ezin du berriz azaldu.



Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051



Burdinazko zubiari falta zaizkionak

Udala eta Kostas Sailaren artean banaturik dago burdinazko zubiaren lanen kudeaketa. Dagoeneko Udalak bete du bere parte. Zubiko zorua asfaltatu da, alboetan barandak jarri, eta Gernikako parketik datozenek buelta guztia eman beharrik izan ez dezaten Itsaskiroldegitik zubira igotzeko eskailera bat ere altxatu da.

Kostasi dagozkionak uda hasierarako egitea espero da. Bigarren fase honetan farola batzuk eta hainbat zuhaixka jarriko dira, eta zorua baldosa dotoreekin estali. Bestalde Santixo inguratzen duen pasealekuarekin lotuko da zubia Astillero ondotik irekitzen ari diren bidea dela medio. Paol puntatik Santixoko barra puntaraino buelta ederra egiteko modua izango da bada.



Plaza berria San Juan Egoitzaren ondoan.

Plaza berri bat egiten ari dira San Juan Egoitzaren ondoan. Egoitzan dauden zahar asko ezinduta daudenez, zailtasun haundiak izaten dituzte kalera jaisteko, eta, plaza herri guztiari irekita egon arren, hauentzako pasealeku bat egitea izan da proiektuaren funtsa. Honela, ohiko argiteria, zuhaixka eta eserlekuez gain plazak paseotxo bat ere izango du Egoitzaren eskuinaldeko sarrerarekin bat egingo duena. Egurrezko egitura bat ere ezarriko dute, plaza guztia inguratuaz, apaindura gisa.

Kontsumitzaileak defenditzeko bulego bat zabaldu dute Zumaian

Kontsumitzaileen kezak, kontsultak eta erreklamazioak jasotzeko eta bideratzeko Urola bailaran dagoen hutsune nabaria ikusita, EKAk bulego bat zabaltzea erabaki du. EKA, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa, herritarrok kontsumitzaile gisa ditugun eskubideak bermatzeko sortu zen, eta kontsumoak gizarte osoan garrantzia izugarri duenez, gai honen inguruko kezka, arrisku eta arazoei aurre egitea du helburutzat. Bulego berriaren zerbitzuak honako egunetan eskainiko dira: astelehen eta ostegunetan, 16:00etatik 19:00etara. Bulegoa San Telmo kalean kokatuta dago, 29 zenbakian, 1. solairuko eskuinaldean. Telefono zenbakia, berriz, honakoa da: 943-862122.

Kontsumoaren inguruan zerbaitek kezkatzen bazaitu, badakizu nora jo dezakezun.

Estetika zentrua

- Gorputzerako tratamenduak
- Aurpegirako tratamenduak
- Depilazio elektrikoa: *Bleud metodoa zunda* (horratzari gabe)
- Argizari epel bidezko depilazioa
- Makilaje iraunkorra:
 - betileak
 - begiak
 - ezpainak
- Oin erreflexoterapia

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plaza
Tel: 943 86 13 22

Kontsulta medikoa

- Azaleko arazoak: psoriasis, dermatitisa, aknea...
- Min arazoak
- Dietak
- Barizeen esklerosamendua
- Liposukzioa
- Bularretako kirurgia

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

“Gora Beti Gazte”

Zumaiako Beti Gazte dantza taldea 33 urte bete dituen honetan desegin egin da. Asko ta askok San Telmo jaietan kanpoko dantza talde bat aritu denean jakin dugu honen berri eta beraiengana jo dugu ea zer gertatu den galdetzera.



Herriko dantza taldea desegin dela jakiteak harridura sortu du gutako askorengan. Ez da berdin izan gertuagotik bizitu dutenentzat, hogeita hamahiru urte bete dituen dantza taldearen desegitea tristura moduan irudikatzen da Iñaxio Alberdi, Alaitz Aizpurua eta Ion Imazen aurpegiatan. Taldearen gorabeherez hitz egiteko aurrez aipatu ditudan hirurekin elkartu arren, ziur Iurre eta Rebeka Eizagirre ahizpei eta beraien moduan urteotan dantzari eta irakasle izan diren guztiei ere parekoa gertatzen zaiela.

Baina zer egingo diogu ba? C'est la vie!

Garai bakoitzak berea dakar eta guztiak du hasiera zail eta astuna, goreneraino iristen den momentu emankorra eta, nola ez, baita amaiera bat ere (halere, filmekin gertatzen den legez, beti dago bigarren atal baterako aukera, zergatik ez).

Taldea deuseztearen arrazoiez galdegitean guztiak bat egiten dute: “Azken urteotan zortzi laguneko mutil dantza taldea osatzeko arazoak genituen. Neskak aldiz oso gustora zebiltzan, iaz hogeita hamar bat

neska edo bazebiltzan eta oraindik ere kalean ikusten gaituztenean dantza noiz egin behar dugun galdetzen digute. Mutilekin bestelakoa gertatzen da: garai batean eskolatik kanpo egin zitezkeen ekintza bakarrenetakoa dantza zen. Mutil eta neska koadrilak eskolatik irten eta dantza ikastera etortzen ginen, aldi berean dantza ikasi, lagunekin egon eta ondo pasatzera. Baina gaur egun batetik kirola dela, bestetik musika, aukera asko dituzte eta mutil banaka batzuk bakarrik hurbiltzen dira dantza taldera. Honez gain, izena ematen



elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenas - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Erribera, 18
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

CANAL DIGITAL

EGUZKI
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

dutenek ere, lagunek parre egiten dietelako edota bat-batean futbolean edo beste zerbaitetan izena eman dutelako, berehala uzten dute.

Pizka bat ikasten dutenerako utzi egiten dute taldea, eta guk berriro ere mutiko berriekin hasiera-hasierratik hasi beharra daukagu, ondorioz, ez da mutil talde sendorik osatzen."

Honen aurrean ea konponbiderik pentsatu duten galdetu diet, neska dantzak bakarrik eginez edota mutilen ordez neskek mutil dantzak dantzatzuz. Honen aurrean ere guztiak ados daude mutil dantzak mutilek behar dituztela egin eta mutilik gabeko dantza talde bat guztiz hankamotz geratzen dela esatean.



"Alardeetara joaten garenean normalean neskek bost bat dantza egin behar izaten dituzte eta mutilek beste hainbeste. Mutil dantzaririk izan ezean taldeak eskaintzen duen ikuskizuna oso pobrea izaten da. Iaz adibidez, Zumaian San Pedrotarako urtero antolatatu ohi genuen alardean, herriko mutil talderik ez genuen osatu eta hori dantza irakasten ari garenontzat oso gogorra da, aurrera jarraitzeko gogoia galtzen da. Gauzak gainbehera joan dira azken urteotan eta iaz, guztion


arteaz arazoa ondo aztertu ondoren, dantza taldea desegitea erabaki genuen, pena izugarriarekin baina ezin genuen horrela jarraitu."

Ez dute meriturik falta urte guzti hauetan borondatezko lana burutu duten irakasle guztiek. Gutxi dira lanetik edo eskolatik irten eta duten denbora libre apurra haurrei dantza irakasten jardungo luketenak, edota udako hainbat eta hainbat igandetan, egun pasa, haurrekin alardez alarde

ibiliko liratekeenak. Guztia musu-truk noski.

Jakinminak bultzata dantza taldearen sorreraz galdegin diodanean Iñaxio Alberdik gustora erantzun du, gozoa baita oroitzenetan murgildu eta garai bateko istorioez jardutea.

"Ni zarauztarra izanik Zumaiako Luis Mari Aristegik Zumaiara dantza erakustera etortzeko proposamena luzatu zidan. Ni orduan Zarauzko "Hondartza" taldean ari nintzen dantzan eta handik, beste



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezarreta, 6 Tel. 861078

taldekide batzuekin batera, bizikletan etortzen hasi nintzen. Guk Mari Pilar Manterola eta Mari Mertxe Iruretari erakusten genizkien pausoak eta beraiek astean zehar besteei erakusteaz arduratzen ziren. Beste askoren artean Kandido Uranga (junior), Anjelito "Goiko" eta "Tolla" izan ziren lehenengo taldea osatu zutenak. Urte onak ere ezagutu ditu Beti Gazte taldeak, Nino eta Joseba Aristiren kintakoen garaian kanpora asko irteten ginen dantza egitera. Oso talde ezaguna eta ona genuen orduan, akordatziak ere!"

Dantza taldearen bizitzan zehar dantzan nahiz erakusten lagun asko aritu badira, ez dira gutxiago izan entsaioetarako erabili behar izan dituzten lokalak: eskola txikia, egun AEK euskaltegia kokatuta dagoen lekua, Foronda kultur etxea, Julene ikastetxea, polikiroldegia, Telefonika zaharra eta Zumea ikastola.

Hainbeste aldaketak eragozpenik edo udalarekin tira-birarik sortu ote dien galdetzean Iñaxiok hori normala dela adierazi dit eta ez dutela inoiz udalarekin arazorik izan, alderantziz, zerbait behar izan duten aldiro eskatutakoa eman zaiela. "Urtero alardea antolatzeko eta materiala erosteko dirulaguntza jasotzen genuen eta sekula ez dugu arazorik izan."

Arazorik ez baina lokalez lokal egindako ibilbide luze honetan xeibrekeriak gertatu zaizkie. Polikiroldegian entsaiatzen zuten garaian, igande goiz batez alarde batera joateko materialaren bila joan zirenean, ohi zuten moduan atea irekitzen hasi zirenean jarri berria zen alarma martxan hasi eta berehala ertzainak, txaperuak eta ziren guztiak azaldu omen zitzaizkien asaldatuta. Orduan sustoa baina orain parre egiten dute kontatzerakoan.



Badirudi hamaika istorio kontatzeko dituen talde honen historia bukatu dela, baina nork daki, hazia ereinda dago eta agian kimu berriren bat haziko da. Bitartean ziur izan kopraixan fandango eta arin-arinak dantzatzerakoan batek baino gehiagok "Gora Beti Gazte" (tadearen irrintzi partikularra) oihukatuko duela. Hala bedi.

◀ ESTI ESTEIBAR

Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ZUMEA TABERNA
Erribera kalea, 2
Tel. 861125

ZURICH
ASEGURUAK
Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

Galdona
burdindegia
Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA
TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Amertxe
Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Victor Jesus:
“Klase bakoitza festa bat izan dadin saiatzen naiz”

Kalean ikasi zuen dantzan, Habanako Marianao auzoan egunsentira arte beltzekin jota fuego arituaz. Pintura eta eskultura ikasketak egin zituen eta bere obra erakustera etorri zen Euskal Herrira duela hiru urte. Jendea eta tokia gustatu eta bertan gelditu da bizitzen, eta han eta hemen salsa ikastaroak emanez ateratzen du bizimodua. Salsero galanta ere badela apustu egingo nuke, bere klaseetan ez da festarik faltako.

■ Zer dauka salsak beste erritmoek ez dutena?

Horixe bera, erritmoa. Gorputz guztia mugiarazten du, oso malgua da, eta banaka naiz-bikotean aukera asko eskaintzen ditu espresio bide bezala... grazia, komunikazioa, berotasuna...

Aipatu beharra dago salsa kontzeptu generikoa dela. Karibeko errimo guztiak barneratzen ditu bere baitan. Honela merengea, runba, lanbada etab. salsa dira, eta salsa beti modan dago, Karibeko erritmoren bat beti baitago modan.

Azkenaldian Kasino deritzon erritmoa da zabaltzen ari dena, telebistan ikusten dena eta ikastaroetan irakasten dena. Kasinoa gure aitonek sortu zuten kuban, bertako folkloreko pausorik arrakastatsuenak erritmo bakarrean bilduaz eta dantza soltea zena dantza lotu eginaz. Kuban puri-purian dago dantza hau eta Europan ere geroz eta indar handiagoa ari da hartzen.

■ Non ikasi zenuen zeuk?

Lehenengo irakaslea nire arreba izan nuen. Bost edo sei urte nituen nik, eta arreba hamar bat urte zaharragoa zen.

Kuban ohitura da etxeko alabak hamabost urte betetzen dituenean bere eskolako gelakide guztiak gonbidatuaz dantza festa bat antolatzea.



KAFETEGIA
GAROA
 JATETXEA
 TXOMIN AGIRRE KAIA
 TEL. 943 86 21 81

gofi
 haur jantziak
 Amaia plaza z/g Tel. 860959

Gure txokoa
 • taberna •
kaxuelita eta pintxo ezberdinak
 San Pedro kalea

GAZTE, S.L.
 ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA
Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiloi eta herriko argietan
 Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402
 TAILERRA: Estazioko kalea, 24
 Tel. mugikorra: 908 -143409

English School
Harvest
 San Jose, 11 bis Tel. 143334

Eta halaxe egin zuen nere arrebak ere, baina festa berezia izan zen, bera gormutua baita, eta gormutuentzako eskola batean zebilenez gelakideak ere gormutuak baitziren. Inork baino gehiago entsaiatu zuten, eta primeran egiten zuten. Bolada hartan sekulako dantza giroa izan nuen inguruan eta orduan hasi nintzen neu ere.

Gero, gaztetxoago nintzela, Marianaoko zonan ibili nintzen mordoa. Marianaok izen oneko bi auzo zituen, baina gainerakoak nahikoa marjinalak ziren, eta hauetan kriston giroa egoten zen. Eta hantxe sartuta egunak pasatzen nituen beltzekin dantzan, gelditu ere egin gabe.

**jende irekiarekin
irekiak zarete
euskaldunak**

Azkenik, bokazio artistikoen ikasketan ere asko ikasi nuen. Bokazio artistikoen lizentziatura bi adarretan banatzen da Kuban: eskultura eta pintura batetik, eta dantza eta musika bestetik. Nik pintura eta eskulturaren adarra aukeratu nuen, baina adar bata eta bestea eraikin berean daude, eta dantzako ikasgeletan neuretan bezainbeste ibili nintzen. Dantzako neskak kasik egunero etortzen zitzaizkidan bila bikote bezala lagun niezaien, beren ikaskide mutilak baino

dantzari hobea bainintzen. Haiiek balet modura egiten zieten eta nik berriz kalean ikasitakoa, 'kriollo' en moduan, eta asko gustatzen zitzaien hori. Ederra zen, neskek akademiako teknika erakutsi zidaten eta nik beraiei Marianaoko beltzena.

■ Noiz etorri zinen Euskal Herrira, eta nolatan animatu zinen?

Duela hiru urte enpresa artistiko batek Espainiara gonbidatu ninduen neure lanak Kantabria, Valladolid eta Oviedon erakustera. Hura bukatu zenean lagun batzuen bidez Euskal Herrira etorri nintzen, eta berriro ere lagun batzuen bidez Urretxun estudio zoragarri bat lortu nuen. Horrek bertan gelditzera animatu ninduen, oso zaila baita hain handia eta aldi berean merkea den estudio bat eskuratzea.

■ Zer moduz moldatu zara hemen?

Primeran. Euskalduna itxia dela esaten dute, eta itxia izango da jende itxiari aurre egitea tokatzen zaionean, baina jende irekiari aurre egitea tokatzen zaionean oso irekia izaten da. Nire lanak komunikazioa erraz sortzen du gainera, eta nire kubatar izaera irekia dela medio jende mordoa ezagutu dut. Ez dut arazorik izan, eta dozenaka lagun ditut herri askotan. Pozik.

■ Nola sortu zitzaizun salsa ikastaroak ematearena?

Hasiera batean pintura eta marrazketa ikastaroak ematen nituen Urretxun. Jendea ezagutu ahala kuadrilekin ateratzen hasi nintzen poteatzera, eta berehala lagun mordoa egin nuen. Kubatarra nintzela eta jende asko hurbiltzen zitzaidan, Kuba asko maite zutenak guztiak eta bertan dezente egondakoak batzuk. Tabernatan musika jartzen zutenean dantzan ibiltzen ginen, eta laster hasi zitzaidan jendea "eta zergatik ez dizkiguzu dantzako klase batzuk ematen?", irakasteko eskatu eta eskatu. Eta nik ezetz "ze koño emango dizkizuet nik dantzako klaseak!", eta "ezetz, ni pintura eta eskulturako maixua naiz...". Azkenean kontuak ateratzen hasi nintzen eta hogeita hamar lagunetik gora baziren eskatua zidatenak. 'Bueno' pentsatu nuen, 'hauekin eta propaganda pixka bat eginda atera daitezkeenekin ez litzateke kopuru makala', eta estudioa ere banuenez animatu egin nintzen.

**apuntatu diren mutil
gehienak taber-
nariak tokatu dira**

Lehenengo ikastaro hartan ateratako diruarekin Kubara joan nintzen oporretara. Ezin nuen sinestu ere

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



HORBEL
PAPER-DENDA

HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53

111 860473
Ortega y Gasset, 3

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Erribera kalea Tel. 861523

egin, Kuban eta oporretan mutill. Gauza serio hartzea erabaki nuen. Jardueraren proiektio garbi bat egin, zabalkundea ondo planifikatu, eta bueltakoan buru-belarri sartu nintzen istorio honetan... gaur arte. Bizimodua ateratzeko modu polita da, eta nire obrarekin jarraitzeko denbora uzten dit tenporada bajua denean.

❑ Nolakoak dira ematen dituzun ikastaroak?

Astean behin bi orduko klaseak emanaz hiru hilabeteko iraupena dute ikastaroek, eta klase bakoitza festa bat izan dadin saiatzen naiz, jendea ikastera etortzen baitzait baina batik bat ondo pasatzera. Ordu erdiko beroketa egiten dugu pauso berriak sartuaz, eta gero ordu t'erdi ikasitakoarekin dantza. Nekatzen denak eseri eta kafetxo bat hartuko du, asmatu ezinik dabilzanak barrez lehertzen egongo dira... oso giro ona egoten da. Hori bai, garantizaturik dago bukatzerako oinarrizko 30 pauso, karibeko erritmo guztietatik aukeratuak, ikasiak izatea, eta gorputz guztian kriston mugimenduarekin ateratzen dira ikasle guztiak.

❑ Ze jende erakartzen du salsak?

Denetarik. Jende asko pasa da ikastaroetatik, Zumaian esaterako 3 urtetan 200 bat, eta hainbesteren artean denetik topa dezakezu. Adinari dagokionean denetarik dago. Pentsa, askotan bodetarako preparatzeko familia osoak etortzen dira, aitona, senar-emazte eta umeak. Sexuari dagokionean neskak gehiago azaltzen direla mutillak baino, baina lortu izan dugu mutill batzuk arrimatzea, eta kuriooa da, gehienak tabernariak.

Aurten, berriz, esan beharra daukat, oso jende gutxi animatu zait Zumaian. Seguraski gehiago etorri eta aurrera aterako da talde bat behintzat, baina bestela datorren urtera arte utzi beharko dut. Dena dela Etxe-Onan festaren bat antolatuko dugu.

kubatar guztiak dakite ipurdia mugitzen, baina dantzan ez

❑ Euskaldunek nolako talentua erakusten dugu kontu hauetan?

Nik espero nuenerako salsero gehiago tokatu zait jende torpea baino. 40, 50 eta 60 urteko andreak, festa eta ezkontzetan ibiliagatik beldur eszenikoa galdu dutenak meneo eta runba ikusgarriak sartzen dituzte.

Gero, jende oso ona ere ateratzen da, profesionalak bezala egitera iristen direnak, salsa muinetaraino barneratzen dutenak. Izenekin nahikoa aldrebesa naiz, baina Zumaian... baziren... Toñi Pablo, Mireia lore-dendakoa, kañoi baten bala bezalakoa, eta Igone bere laguna... oso onak, oso gogorak, apartekoak...

❑ Zer da gehien kostatzen dena eta zer errazen ikasten dena?

Teknika eta solturak bat egitea izaten da zailena. Neurri batzuk eraman eta guztia sinkronizatzen fortzatzen gaituen teknika ikasitakoan, hasierako bizitasun hori, runbeatu eta aldakak edozein modutan hona eta hara mugitzeak ematen duen poz hori, berreskuratzeak bere lanak ematen ditu.

Erazena, berriz, merengea ateratzen da. Kontatu didatenez Juan Luis Gerra



izan zen salsa hemen sartu zuena, eta bere eragina nabaria da, jendeak segituan dominatzen baititu merengearen erritmoak.

❑ Posible al da Kubatarra izan gabe salsa ondo dantzatzera iristea?

Bai, eta badago kubatarrek baina hobeto dantzatzeko duen jendea.

Hemen Kubaz duzuen kontzeptua denbora guztian dantzan ari garela da, eta hori ez da horrela. Kuban festa dagoenean bakarrik egiten da dantza. Gertatzen dena da festa dagoenean inor ez dela geldirik egoten, jende guztiak juerga egiten duela. Beraz, egin dezagun bereizketa bat: gauza bat da kubatar guztiak ipurdia mugitzen jakitea, eta beste bat kubatar guztiak dantzan jakitea.

Izatez hemen dauden kubatar guztiak ez dira dantzako irakasleak, eta herri bakoitzean kubatarrek lau edo bost kontatu ditzaket dagoeneko.

Eta egin didazun galderari erantzunez, nire ustez dantzari ez zara jaiotzen, egin egiten zara.

❑ Bukatzeko, animatuko al zinateke bereziki gustatzen zaizun ahapal-diren bat abestera?

... Gloria Estefanek dioen bezala esango dizut ' mi salsa es sabrosa, ven, baila mi salsa'.

◀ ANTOKA AGIRRE

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ


San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA
Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH
Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Javier Madrazo: "Euskal Herriak soluzioak emango dituen norbaiten beharra du"

Javier Madrazo atzo
Gasteizen Izaki
Unizelularra zerrendagai
berriaren aurkezpen
ekitaldian



IU-EB, Izaki Unizelularra-Ezker Batua, alderdiko zerrendagai berriaren adierazpenek zeresan handia sortu zuten atzo Eusko Legebiltzarrean. Azken urteetako balantzea egin eta gogor kritikatu zuen orainartean eramaniko politika.

Istilu larriak IU.ren adierazpenen ostean



Izaki Unizelularren adierazpenek euskal gizartean berehalako eragina izan zuten. Erantzun ezberdinak izan ziren baina istilu larrienak instituto baten atarian gertatu ziren Jarrai gazte erakundearekin erlazionaturiko enkaputxatu batzuk zerrendagai berria eraso zutenean. Zorionez I.U.k puztu eta onik ateratzea lortu zuen.

Leihoaren ...ahotik

Negualdi luziaren ondoren, hasi da txoritxua ohitura duen moduan balkoi bazterrera hurbiltzen. Hasieran bildur pixka batekin, jada ogi papurak eskutik bertatik jaten dizkit. Hatzaparrak esku gainian, gustora abesten du jaten ari dan bitartian. Abesti goxua beria, denborak aldatu ez duen abestia. Izan ere, aspalditik ezagutzen det txoritxua. Urtero-urtero udazkenarekin batera behealdeko lurralde beruetara juten dan eran, udaberriak berriz utzitako tokira itzultzen da. Kuriosua benetan hain xixtrina dirudien izaki bat horrenbesteko distantziak korritu ostean, nola dan kapaz lehengo tokira bueltatzeko. Gauza jakina da itxia bezelakorik ez dagona.

Aurtenguan ordia larri dabil. Balkoi ertzian jarri eta txorrotxioka, bere itxiaz galdetzen dit. Nun da nere itxia? Nik bitartian Balentziaganeko astillerora zuzendu ditut begiak. Portuaren obrak aurrera doaz. Zementu hotzak irentsi ditu han ziran basadiak.

Irentsi, jan, estali, zapaldu, birrindu,... kaput! Harenak egin dik. Egin, hori dek eta! Egin, eraiki, aurre-rapenaren aditza. Egin DET, sortu DET, bideratu DET, lortu DET. Zenbat gauza egin daitezkeen lau urtetan, eh? Hauteskundeak.

Eta beste zereginik ez degunontzat, egunaren monotonian, norberaren bakardadian, edozein txikikeriak asko suposatzen du. Esnezalia egun batez bi minutu beranduago etorri dala, edo postariak tinbretik deitzen duenian "carteroo" lehor bat bota biharrian "postaria naiz, irikiko atia mesedez" esaten dizula... edozer. Ba pentsa zer suposatzen duen poligonuan babes ofizialeko itxe-andana bat egin bihar dutela jakitiak, edota estaziyan industrialde bat egiten ari dirala (ikustera juteko aukera urrutitxo). Igerilekuaren eraikuntzak ere asko entretenitu gaitu, hori bai, paretak bi dobletan egin izan balituzte berotasuna hobeto mantenduko zala uste det, baina...

tira! Gu ez gera iginiuak eta, izango zuten arrazoirik.

Bai, xorrotx xamarrak gerana badakigu, baina ez da estremuetara jo bihar. Estremuaren estremuan ixkina egoten da, eta ixkinaren kontra min hartzen errexa da. Lehenguan gazte bati entzuten nion, << etzioat inorri kurpila Pulpo aurrian pintxatzerik opa, eta hala gertatuz gero, llanta gainian urrutiratzia gomendatuko niokek, bertan aldatzen hasi ordez>>. Hainbesterainokuak al gera ba? Mingaina bai abila, baina hortik aurrera, poco miedo gurekin, ez degu inor jaten. Aldian behin purrustadaren bat agian, baina gehiagorik ez.

Akatsak noski dituguna, baina akats horiek zuzentzian dagon koxka. Ba zuzen DITZAGUN, konpon DITZAGUN, baina ez zuk edo nik, danon artian. Neri dagokidanez, datozen lau urteotan txoritxuari kabi berria egitia lortuko banu, konforme nintzateke. Lagundu nahi bazenit...



leapandegia

IZETA

Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa
ITZULPENAK
 euskara . gaztelera . katalana
 ingelesa . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
 E-mail: bakun@encomix.es



Loredenda
JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375

Zer iruditzen zaizkizu paol puntako argi berriak?



Edu Garate

Ez det ezer ikusi.
Ez naiz paolera jun
aurreko agostotik
behintzat.



Domingo Muñoz

Ez ditut
oraindik ikusi. Zertara
joango naiz paolera, hemen
Erriberan txikiteoan
ibiltzen banaiz.



Juanjo "Pelopin"

Goraka
irtetzen dira eta
begietan jotzen dizute.
Hobeto ilun-ilun.



Idoia Zubizarreta

Ez
ditut ikusi.



Josune Aizpurua

Ba oso politak dira
baina
parejenzako oso gaizki.
Lehen intimidadean egoten
ziren eta orain
beste leku bat
bilatu behar.



Kevin Costner

Txerrikeria bat, ze lehen
hara joaten nintzen,
badakizu neskarekin,
ba horretara.
Orain, ikusten duzu,
Oxforreko panelean
egon behar
gure gauzak egiten.



Diego Alvaro


Argiak?
Partidutik bueltan ikusi
nituen,
Ez nekien ezer, baina oso
ondo iruditzen zaizkit. Hala
ere ez dute
asko iraungo, ze dauden
marea txarrekin...
dana aio!

**Larrañaga
Juanjo**
HARRATEGIA URDAITEGIA
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

**taberna
JUSTA**
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20

KABI
TABERNA - ZUMARRA
Tel. 143379

Mendaro Marinela Mallorcan



Askotan aditu izan dugu XV eta XVI. mendeetan Euskal Herriko portuek bizitza komertzial haundia izan zutela, baina gutxitan ematen dira ideia orokor horren frogak dokumentuen bitartez.

Baina, kasualitateak sorpresak ematen ditu eta, orain dela gutxi, Baleike aldizkarira gutun bat iritsi zen harreman komertzial horien berri emanez.

Gutuna Ramon Rosselló eta Jaume Boverrek izenpetuta dago eta bertan Mendaro Marinelaren itsas merkataritza berri ematen digute. Dirudienez, Mallorcako Erresumaren artxiboan (*Arxiu del Regne de Mallorca*) gordetzen den 1460. urteko notario akta batean Zumaiakoa zen "Juan Martinez de Mendanes" delako batek "Santa Maria" izeneko itsasontzia alokatu zion bertako merkatarari bati, Ibiza, Menorca eta Mallorca irlen artean gaiak garraiatzeko: gatza eta urdinez tindatzeko

gaia Ibizatik Mallorcako industri gunetara eta artilea Menorcatik Genovako portura eramateko.

Itsasontziak 50 lagun zituen marinela eta zerbitzarien artean. Hala ere, ez du zehazten nongoak ziren, baina haietako asko euskaldunak edo zumaiarrak izango zirela pentsa dezakegu.

Ikusten denez, Juan Martinez de Mendaro zumaiarra oso merkataria ona izan zen eta bere itsasontziari etekina ateratzen zion Mediterraneo inguruko merkataritza bideetaz baliatuz. Europa guztian zabalduak izan ziren itsasontziak ziurrenik Zumaiaren egiten ziren, eta ez bakarrik Flandes eta Gaztela arteko hartu-emanak asetzeko, sarritan esan diguten bezala. Azken hau pentsatzea logikoa zen Gipuzkoa Gaztelako erresumari lotuta zegoelako, baina ikusten dugu burgesiaren diru egarriak toki guztietara zabaltzeko beharra ikusi zuela eta Mallorcaraino

ere iritsi ziren, bertan dirua egiteko aukera zegoenean.

Ez dut gaia gehiegi ezagutzen, baina gutxitan irakurri dut euskaldunen parte-hartzea Mediterraneoan merkataritza bideetan. Ez dirudi oso arraroa denik, gutunean aipatzen denez beste notario akta askotan azaltzen dira patroien izenak eta jatorri euskalduna adierazten duten esaldiak "de nació de biscaïns", baina gutxitan jartzen du nongoak ziren kasu honetan bezala.

Eskertzekoa da ikertzaile horiek bialdutako gutuna, orain arte Mendaro marinela gutxik ezagutzen duten kalearen izena eta eleizari ohola eskaini zion pertsonaiaren izena besterik ez zelako. Arteak utzitako dokumentu historikoa (Mendaro beraren erretratua eta guzti bere itsasontziekin batera) dokumentu idatziekin osatzeko aukera izan dugu gutun bitxi horren bidez.

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA

J A T E T X E A

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

kalari Erribera kalea, 16
Tel. 862517

KOSTALDE

Koadernatze lanak Paperaren manipulazioa

Santiago auzoa, 10
Tel.: 943 860917 / 943 861179
Tel. mugikorra: 600063557
20750 ZUMAIA

San Pedroak 99

EKAINAK 25, OSTIRALA

- **20:30**etan, San Pedrotako pala txapelketako amaiera partiduak.

EKAINAK 26, LARUNBATA

- **12:00**etan, Oxford aretoan, Iraulza dantza taldearen Ohiturazko Euskal Jantzien erakusketa zabalduko da.
- **16:30**etan, XXIII. Urolako igoera eta jaitsiera piraguismo froga.
- **22:30**etan Itzurun hondartza gainean Musika Eskolako "rock taillerreko" ikasleen eta herriko talde gazteen kontzertua.

EKAINAK 27, IGANDEA

- **Egun osoan zehar**, Zumaiako IX. Artisau Azoka, Eusebio Gurrutxaga plazan.
- **12:00**etan Etxabe Anaiak trikitilariekin jaigiroa eta Zumaiako Txalapartarien saioa.
- **19:00**etan Amaia eta Kristina taldearekin erromeria.

EKAINAK 28, ASTELEHENA

- **Eguerdian** Udaletxetik Txupinazoa jaiei hasiera emateko. Ondoren kalejira alaia Tolosako Dultzaineroekin.
- **14:00**etan Erribera kalean Bazkari Herrikoa, eta ondoren kuadrilen arteko jokoak.
- **17:00**etan Udaletxe aurretik, Buruhandi eta Erraldioen kalejira Tolosako Dultzaineroekin batera.
- **18:30**etan, plazan Herri Kirolak: Mindegia-Olasagasti-Barberena-Mugerza. Iñaki eta Iñazio Perurena. Ugaitz Mugerza eta Itziar Goenagaren aizkora apustua.
- **19:00**etan Udal Musika Bandaren Kalejira.

- **19:30**etan hasita eta tanborradaren ondoren Los Pasai txarangarekin kalejira.
- **23:00**etan San Pedrotako Tanborrada Berezia. Amaieran, Eusebio Gurrutxaga plazan, Irailerako Sei taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 29, ASTEARTEA. SAN PEDRO EGUNA.

- **8**etan, Goiz-soinua Tolosako Dultzaineroekin.
- **8:30**etan Herriko Gazteek antolatuta, Txokolatejana.
- **10:15**etan Alkatesoinua Udal Musika Bandarekin, eta Udalbatza eta herritarrak prozesioan Parrokira joango dira.
- **10:30**etan Meza Nagusia San Pedro Abesbatzak abestuta. Egitaraua:

Introitus -gregorianoa
Tu es petrus (5 a.n.)
 -H. Eslava
Koronazioko meza (4 a.n.)
 -A. Mozart

- **12:30**etan Udal Musika Bandaren kontzertua plazan. Jarraian Tolosako Dultzaineroen Kalejira.
- **16:30**etan herriko gazte kuadrilen arteko Futbolin Erraldoi txapelketa.
- **17:00**etan Odieta pilotalekuan, Eskuzko Pelota Partiduak profesional mailan.
- **Arratsalde-iluntzean** zehar Tolosako Dultzaineroen ekitaldiak.
- **19:00**etatik 22.30etara dantzaldia plazan.
- **24:00**etan Urola ibaiaren itsasadarrean, Su Artifizialak, Pirotecnia A. Caballer etxeak eskainita. Bukatzean, kalejira E. Gurrutxaga plazara Tolosako Dultzaineroekin.



Bertan Udal Musika Bandarekin dantzaldia (tarteetan Dultzaineroek ere joko dute).

EKAINAK 30, ASTEAZKENA.

- **9**etan Tolosako Dultzaineroekin goiz-soinua. Talde honek ekitaldi gehiago eskainiko dizkigu eguerdira bitartean.
- **11:30**etatik **13.30**etara eta **16.30**etatik **20.30**etara herrian zehar Txu-Txu trenaren ibilaldiak (irteera E. Gurrutxaga plazan).
- **20**etan Los Perez de Nochistlan mariachi orkestaren kalejira.
- **23**etan Oxford aretoan, Juan Andres Unanueren gitarra kontzertua.

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

KUKUTZ
serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6 Tel. 860415



Euskal liga helburutzat

Traineru denboraldia hastear, zumaiarrek ilusio handiz ekingo diote

Entrenatzaile eta patroï berriarekin ekingo dio Telmo Deunek aurtengo traineruen denboraldiari eta beti bezala San Pedro aldean izango dute lehen estropada. Urte batzuetan zeregin hau alde batera utzita egon ostean, Luis Mari Olasagasti "Luxia" oriotarra berriro ere entrenatzaile lanetan dabil Zumaian eta Joseba Aristik utzitako lekua hartuko du modu honetan. Lehenago, Luxia, 1981-90 urteen artean aritu zen Aita Mari Arraun Elkartearen. Berekin batera, Getariatik patroï berri bat ere izango du Zumaiaiko ontziak, Xabier Eizagirre hain zuzen ere.

Luis Mari Olasagastik aipatu duenez, "iaz Oriotik jaso nuen eskaintza bertako ontzia prestatzeko, baina Zumaian bizitza eginda dudanez ezezkoa eman nien. Dena den aitortu behar dut erabakia hartzea asko kostatu zitzaidala, izan ere Orio beti da karamelo tentagarria edonorentzat eta nahiz eta Zumaian bizi eta lan egin, ez da ahaztu behar oriotarra naizela". Aurten berriz, Luis Mari Goikoetxeak, Aita Mariko presidenteak eskatu dio entrenatzaile jartzeko eta hortan dihardu.

Trainerillen denboraldi bikaina burutzen ari dira Zumaiaiko bi ontziak. Bai bat eta bai bestea lehenengo hamar postuetan sartu dira estropada gehienetan; dena den Luxiak ohartarazi nahi du, "talde batzuk ez direla gehiegi prestatzen

trainerilletarako eta bereziki traineruen denboraldian dituzte jarrita beren begiak. Talde horiek irailera begira zuzentzen dute normalean beren prestakuntza".

Kuadrila, juxtu xamar

Zumaian dagoen arraunlari kuadrilaren inguruan, entrenatzaile zumaiarrek azaldu du nahiko juxtu daudela. "Batzuk utzi egin dute, berri batzuek sartu dira, jubeniletatik ere baten bat igo da, baina ez gaude sobrate ezta gutxiagorik ere".

Helburuei dagokienez, Euskal Ligan sartzea da beren asmo nagusia, prestakizun guztiak hortara zuzendua dute eta trainerilletako emaitzak eta egiten ari diren entrenamenduak ikusita, "uztailerako puntu-puntu egongo garela uste dut". Izan ere

hilabete horren hasieran jokatuko dira Euskal Liga horretan sartzeko kanporaketak. Luxiaren esanetan, "Euskal Liga horretan ez sartzea porrot handia izango litzateke guretzat".

Bere ustez, Orio izan daiteke berriro ere denboraldiko dominatzaile nagusia. "Koxtapek ere goian behar du izan eta berekin batera, betikoak: Hondarribia, Donibaneko...". Astillerok ere oso ontzi ona duela adierazi du entrenatzaileak, "Pasaiatik eta Errumaniatik arraunlari batzuk hartu dituzte".

Luxiak esperantza osoa du aurten aurreko urteetan baino paper hobea egiteko. "punta-puntako ontzien atzetik seigarren eta zortzigarren postuen artean dago gure lekua eta hor egoteko borrokatuko dugu".

◀ IGOR URANGA



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422



LIBRERIA

AIZPURUA

kmk99

Oreretan

materiala salgai!

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569



kamisetak
mantalak
galtzerdiak
eta abar



Hilabete honetan amaituko da San Pedro pala txapelketa

Oraindik bigarren fasea ari dira jokatzen gizonezkoak

Poliki-poliki, San Pedro Pala Txapelketa bere unerik interesgarrienean sartzerara doa. Emakumezkoetan ez da ustekabekorik eta Gabarain ahizpak eta Egaña-Aizpurua bikotea dira hautagai nagusiak finalera iristeko. Gizonezkoetan berriz, gauzak ez daude hain argi eta oraindik

partidu batzuk falta direnean bigarren fasea amaitzeko, San Pedrineko eta San Pedroko finalerdiak oraindik erabaki gabe daude.

Bigarren fase horretako azken partiduak ekainaren 13an jokatuko dira eta finalerdiak berriz, hilaren

18an eta 20an. Finalak aldiz, San Pedrotako jaietan izango dira, hilaren 25ean.

Gizonezkoen San Pedro eta San Pedrin taldeak honako bikote hauek osatzen dituzte:

San Pedro

- 1- Zuazobide-Agirre
- 2-Ostolaza anaiak
- 3-Gorostola-Aizpurua
- 4-Arratibel-Irureta
- 5-Uranga anaiak
- 6-Arratibel-Etxabe

San Pedrin

A taldea

- 1-Alkorta-Urbieta
- 2- Arratibel-Seguroa
- 3-Martija-Gomez
- 4-Lujan-Jimenez
- 5-Aizpurua-Lazkano

B taldea

- 1-Unanue-Unanue
- 2-Zendoia-Azkune
- 3-Urrutia-Albizu
- 4-Prieto-Galarraga
- 5-Buenetxea-Grela

Zumaia zetan txapeldun

Maiatzaren 30ean Karmelo Balda pelotalekuan jokatutako finaleran Zumaia Herriarteko Torneoko txapela eskuratu zuen, gure herriak zesta-puntan harrobi ezin hobe duela agerian utziz. Tolosako zestalariak izan zituzen aurkari, eta lehen bi partiduetan erabaki zen dena. Izan ere, biak irabazi ondoren txapela ziurtaturik baitzegoen. Kadete mailan Unai Korta eta Imanol Lopezek 30-7ko emaitzaz erraz gailendu ziren; jubenetan Ruben eta Txasiok 30-19 irabaztea lortu zuten; eta amaitzeko, Antxon Alberdi eta Xalba Beristainek ezin izan zuten garaipena eskuratu eta 20-35 galdu zuten, baina ordurako txapela zumaiarren buruan zegoen. Zorionak denei!



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

BALEIKE

1999ko ekaina, 58. zenb.

Erregionalek azkenean huts egin dute.



Igoera eskuan izanda Zumaiako Endañeta Altzariak taldeak pott egin du

Sinesgaitza izan da Lehenengo Erregional mailako futbol taldeak egin duena. Liga amaitzeko bi partidu falta zirenean, Zarautzen kontra etxean jokaturako neurketan berdinketa lortu zuen birritan aurretik jarri ondoren. Hiru puntuak ezinbestekoak ziren igoera lortzeko baina azkenean ez zuen bere helburua erdietsi eta Segurako taldea igo zen.

Bigarren postuan amaitu zuen Zumaiakok liga txapelketa eta hau horrela izanik, igoerako kanporaketa jokatzeko eskubidea eman zion. Aurrez aurre beste multzoan bigarren postuan sailkatutako Hernani taldea zuen. Kanporaketa bi partidutara jokatu zen, lehenengo neurketa hernaniarren etxean; zumaiarrek errespetu handia zioten beren arerioari, etxean batez ere oso talde sendoa azaldu baitzen.

Baina neurketa horretan, zumaiarrak nagusitu ziren 1-2ko emaitzarekin. Kanporaketa erabat erabakita uzteko gol aukera apartak izan zituzten Joseba Alberdiren mutilek, baina ate aurrean ez zuten asmatu.

Abantaila ona

Bueltako neurketarako, ordea, abantaila politarekin etorri ziren jokalaria eta zalantzarik ez zegoen

kanporaketa beraientzat izango zela. Ez zen alabaina horrelakorik suertatu, ezta antzik ere.

Aita Marin jokaturako norgehiagokan, Zumaiako Endañeta Altzariak taldea konfiaturik irten zen zelaira, kanporaketa erabakita zegoelakoan, baina hernaniarrak hasieratik gogotsu atera eta partidua hasi eta minutu gutxira beren lehenengo gola sartu zuten. Beranduago, zumaiarrek neurketa berdintzea lortu zuten eta banako markagailuarekin iritsi ziren atsede-naldira.

Bigarren zatirako emozio handia espero zen, baina hau poliki-poliki aldentzen joan zen Hernaniko jokalarien nagusitasuna aregotzen zihoan heinean. Hasi bezain laister, beren bigarren gola sartu eta minutu gutxi beranduago, falta jaurtiketa baten ondorioz, 1-3koa jarri zuten markagailuan. Hor amaitu zen

neurketa. Zumaiarrak hondoratu egin ziren eta kanporaketa gaintzeko bi gol sartu beharra zeukaten.

Buru gehiegirik gabe aurrera jo zuten baina arriskurik sortu gabe. Beren aurkariak berriz, atzealdeko akatsak eta zuloak ondo aprobetxatu eta bi kontraerasotan beste bi gol egin zituzten; partidua amaitzeko zorian zegoela, etxeko atezainaren huts handi bati esker beren seigarren eta azken gola sartu zuen Hernanik. Azken emaitza beraz, 1-6koa izan zen eta honenbestez, urtebete gehiagoz Zumaiako Endañeta Altzariak taldeak Erregionaletan jarraituko du datorren denboraldian.

Golpe gogorra jaso dute, baina datorren urtean Preferentera igotzeko ahalegin berria egin beharko du talde zumaiarrak.

◀ IGOR URANGA



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- .Banakakoak
- .Kolektiboak
- .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14Tel. 860074 - 861569

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ekaina

ERAKUSKETA

Euskal ohiturazko jantziak.

► Ekainaren 26tik aurrera.

Oxforren

LEHIAKETAK

• Zumaiaiko XI. argazki lehiaketa. (oinarriak Forondan).

Lanak aurkezteko epea:

► Ekainak 25.

• Udako Kartel lehiaketa:

Oinarriak Forondan. Saria 60.000 pezeta. Epea:

► Uztailak 9.

VI. ITSASPEKO ZINEMA ZIKLOA

► Ekainak 10, osteguna

Aita Mari zinean

KONTZERTUA

Gu Geu & Company taldeak, klarinete, piano eta abarren kontzertua eskainiko du.

► Ekainak 11, ostirala, 22:30etan,

Maria eta Jose antzokian

EGUZKILORE ABESBATZA

► Ekainak 12, larunbata 20:00etan

Parrokian

IPUIN KONTAKETA

Lamiak taldearen eskutik.

► Ekainak 17, osteguna, 17:30etan

Liburutegian

KONTZERTUA

Gaszteizko Aula de la Tercera Edad, Ondarruako Antiguako Ama eta Beheko Plaza abesbatzen kontzertua.

► Ekainak 18, ostirala

Aita Mari aretoan

SAN ROMUALDO JAIK

Poligonoetan.

► Ekainaren 18tik 20ra

HAUR ABESBATZA SAIOA

San Pedro txiki eta Txikienak, eta Catalunyaeko Nova Cervera.

► Ekainak 25, ostirala, 19:00etan

Odieta pilotalekuan

ARTISAU AZOKA

► Ekainak 27, egon osoan zehar

SAN PEDROAK 99

► Ekainaren 28an hasita.

Uztaila

HAURRENTZAT PARKE BEREZIA

► Uztailak 1, osteguna, 11:30etatik

13:30etara eta 16:30etatik 20:30etara.

Eusebio Gurrutxaga plazan

TAKOLO PIRRITX ETA PORROTX

► Uztailak 2, ostirala, 18:00etan

Beheko plazako kioskoan

AZPEITIKO HAUR ORKESTAREN SAIOA

► Uztailak 2, ostirala, 20:00etan

Mari kalean

GAZTETXOENTZAT JOLASTEGI BEREZIA

Mahaiko jokuak, denborapasak, txapelketak...

► Uztailak 3, larunbata, 11etatik 13etara eta 16etatik 20etara.

Oxforren

KONTZERTU JAIALDIA

Vision oekesta cubatarren eskutik

► Uztailak 3, larunbata, 23:00etan

Eusebio Gurrutxaga plazan

GAZTETXOEN JOLASTEGIA

► Uztailak 4, igandea, 11etan hasita egun osoan

Oxforren

SAHATSA EUSKAL DANTZA

taldearen emanaldia

► Uztailak 4, igandea, 13:00etan

Eusebio Gurrutxaga plazan

III. ARDI TXAKUR TXAPELKETA

Narrondoko jai batzordeak antolatuta.

► Uztailak 4, igandea, 18:00etan

AULKI MUGIKORREKO ERAKUSKETA

► Uztailak 4, igandea, 18:30etan

Urola ibaian

LOGOTIPO LEHIAKETA

Zumaiaiko Merkatal Elkartek antolatuta, logotipoaren diseinua eta proiektutxo bat aurkeztu behar dira, SARIA: 25.000 pta.

Lanak aurkezteko epea:

► Uztailaren 10a baino lehen.

Foronda

V. KOMIKI-LEHIAKETA

Aurten sari bikainak!

1. SARIA: 50.000 pta.

2. SARIA 30.000 pta.

Zumaiar onenari: 20.000 pta

Oinarriak Foronda kultur etxean eska ditzakezu. Epea:

► Uztailaren 30ean amaituko da.

Forondan

ILE APAINDEGIA

herena
Uranga

Etkezaretan, 19 Tel. 862342

Nikol  **Enea**
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

ZINE FORUM



Ejecución inminente

Zuz: Clint Eastwood
Akt: Clint Eastwood,
James Woods

98/99 denboraldiko zine-forum saioak amaitu direnez (adi egon, datorren urrian hasiko den denboraldi berriaren itxura baba botatzekoa baita), Aita Mari aretoan eskaintzen den zine komertzialari eskainiko zaio aldizkari honen txoko hau uda garaian. Normalean beroaldiarekin pantailaratzen diren filmeen maila zeharo eskasa izaten da, gehienbat akziozko filma kutre ipar amerikarrez osatzen baita eskaintza, Van Damme, Stallone eta Steven Seagal buru dituztela, baina Aita Mariko hormetan itsatsirik dauden posterrei begirada bat botatzea besterik ez da behar izan altxor txiki batekin topo egiteko: Clint Eastwood zaharraren *Ejecución inminente*.

Bai, agian gehiegizkoa da altxor bezala hartzea film hau, baina azken hamarkada honetako Clint-en filmak beti ere maila bikain bat izan dute. Esan daiteke Eastwood jauna *Sin Perdón* zoragarriaren ondoren hasi ginela autore bezala hartzen, eta ondoren etorri diren *Un mundo perfecto*, *Los puentes de Madison*, *Poder absoluto* eta bereziki *Medianoche en el jardín del bien y del mal*-ek maisu mailara igo dute zuzendari kaliforniarra. Hala ere nork uka dezake aurreko hamarkadako *El jinete pálido* eta *Bird* ez zirela lan borobilak. Ba horixe.

Ez, *Ejecución inminente* hau ez da aurreko filmeak bezain ona. Onartu behar da *Medianoche...*-ren inspirazioa berriz lortzea nahiko zaila dela, gainera, Tim Robbins-en *Pena de muerte*-ren ondoren, ez du zentzu haundirik heriotz zigorraren gaiari beste buelta bat ematea. Hori bai, aktoreen lana benetan txalotzekoa da. Film honek Hollywood-eko bi munstro ditu: Clint eta James Woods. Bigarren hau ez da Clint bezain ezaguna izango, baina nahikoa da *Salvador*, *Videodrome* eta *Casino* filmeetan parte hartu duela esatea.

Beno, esan bezala, ez da film borobila, baina Estatu Batuetatik etortzen diren film negargarrien artean *Ejecución inminente* benetan altxor bat da.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Bada hiri gorri bat
Patagonia express
Beirazko giltzak
Zanpa ezak sugea
Herrenaren arrastoa



Asier Serrano
Luis Sepúlveda
Jaume Fuster
Yasar Kemal
Juan Kruz Igerabide

Gaztelerez

Bogart
El nombre que ahora digo
Amanecer con hormigas en la boca
El viaje de Corax
Un mes con Montalbano



A.M. Sperber & Eric Lax
Antonio Soler
Miguel Barroso
Paul Park
Andrea Camilleri

Haurrak/Gaztetxoak

Marijane konta zan
Dena ilundu zen
Eguzkilore
Etorkizunaren ispilua
Piztiak eta superpiztiak



Marijane Minaberry
Jaap ter Haar
Antton Kazabon
Jordi Sierra i Fabra
Saki



GILANO

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

LIBURUDENDA
Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Zumaiako kultur harrobia



Maiatzaren 14ean San Telmo lehiaketan irabazle izan ziren haurrentzako sari ematea izan zen Foronda Kultur Etxean. Azken urte hautean gertatu izan den bezala, sari hau bi arlotan banatzen da. Alde batetik Mintzamenekoa dago, urtea betetzen duena, eta bestetik idatzizkoa, San Telmo sariaren haseratik egiten dena, eta beraz urte honetan bere XVI.a betetzen duena.

Sari emate egunean, irabazle denek, beraien familiakideek eta lagunek Forondako hitzaldi gela bete zuten eta baita irabazlearen izena aipatzen zenean, animozko garrasiak bota ere. Ondoren denek, sarituek eta kideek "Txan Haundia" magoaren emanaldiarekin gozatzeko aukera izan zuten.

Hona hemen San Telmo sarien irabazleen zerrenda. Zorionak denori!

Mintzamen lehiaketa.

LH. 3. zikloa.

Kontakizunak: Manex Argoitia eta Ane Sasiain.

Esaera zaharrak: Maialen Alza eta Naiara Rodriguez.

DBH.

Esaera zaharrak: Xabier Odriozola

DBH 1. zikloa, Olatz Arregi Urbietia:

"Lagunak? Denetik dago".

DBH 2. zikloa, Naiara Barredo Goiko-

etxea: "Familia eta dirua".

BERTSOAK

LH 3. maila, Jose M^a Galdona Yeregi:

"Aldrebeskeriak".

LH 4. maila, Gaizka Astigarraga Loiola:

"Aitor Zabaleta".

LH 5. maila, Manez Eloa Txapartegi:

"Euskara".

LH 6. maila, Urtzi Iribar Arroiabe:

"Alpeak".

DBH 1. zikloa, Sara Cortes Etxaniz:

"Eskola egunak...".

DBH 2. zikloa, Iker Leturiondo Muñoz:

"Itsu bizi naiz eta...".

16 urtetik gorakoak, Gorka Iribar

Arroiabe: "Itsasoa".

OLERKIAK

LH 3. maila, Zorione Saenz Txapartegi:

"Mantagorria".

LH 4. maila, Maddi Gallastegi Osa:

"Ihintza".

LH 5. maila, Aiora Etxeberria Elosua:

"Pailazoa".

LH 6. maila, Jaiotz Osa Buenetxea:

"Mendiko printzesak".

DBH 1. zikloa, Martin Amilibia: "Arrantzaleen bizitza".

DBH 2. zikloa, Laire Basurko

Odriozola: "Injustizia".

Idatzizkoa

IPUINAK

LH 3. maila, Maite Aizpurua Olaizola:

"Ustegabeko lehortea".

LH 4. maila, Ane Lopetegí Aizpurua:

"Mikel Esne banatzailea".

LH 5. maila, Maria Barrera Telleria:

"Ni naiz lorerik ederrena".

LH 6. maila, Luis M^a Hurtado Azpeitia:

"Ai ene, aitona!".



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

BELARDENDA
SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012



LA BUENA VIDA

Hamarrak laurden gutxi dira eta jada hasiko zen Lidia Lunch-en kontzertua Bilborrock-en. Zarata, probokazioa, zerbait iluna, eta menstruazioak, drogak edo biolentziari buruzko letrak izango dira seguru. Inoiz ez dugu entzun baina horrelako zerbait seguru.

Hemen berriz, ensalada, tortilla eta orain LA BUENA VIDA eta te bat. Horrelako zerbait, ez? Telefono batek jo zai zaudenean bezala, edo joko ez duela dakizunean bezala, egonean. Melankolia komodo batean, etxeko zapatilletan. Ez ginen ondo ulertu, eta joan ginen bakoitza bere bidetik... baina hain dira politak bibolin hauek... Pelikula batean bizi garenak bezala,... Donostiako jardinak zeharkatu eta orkestra bat hasten da jotzen, eta jubilatuta danak gora begira "¿Que cojones...?".

Edo bizkarra emanda itsasoari begira barandillan dagoen hori izan daiteke, Irantzu edo ez dakit nola izena duten. Eskaparateak begiratu, eta gero Zarako

kajeroan zure aurretik ordaindu duen hori, ia ikutu dezakezu. Oso polita da, baina Donostian horrelako 2.000 daude. Edo 12.000. Kaleetan pasatzen eta eskaparateetan isladak... gainera orain udan denok gara politagoak: arropa txiki horiekin... manga motzetan eta kolore polit hori azalean...

Ez dut inor ezagutzen, eta taberna garbi batean egongo dira irribarrez eta zerbait esaten, hemendik ez da entzuten baina ikus dezakezu nola mugitzen duten ahoa eta gero buruaz baiezkoa ematen eta beste mugimendu horiek egiten, mutu. Leihoa irekita duen taberna horietako bat izango da, kamareroa ezagutzen dute, eta tenisa edo kirol politen bat egingo dute larunbat goizean. Agian norbaitek zakurra atera beharko du parkera, hain polita ikusten da parkean bere silueta zakurra-ekin, zuhaitz artean.

Irribarre egiten dute, edalontziak ezpainetara eramane eta norbaitek zigarroren bat erre. Musika entzuten da, mutil batek

Borja izena eduki dezake, neskek Miren edo Amaia, bai agian Amaia, baina ez daki euskeraz. Beste lagunek ere horrelako izenak... azkenean zu jaiki eta bazoaz, begiratzen diezu pasaran, aldizkari bat dute zabaldua mahai gainean, eta pentsatzen duzu agian ez direla beraiek. Okerrrena, ia seguru ez direla beraiek izango, baina berdin du, mundua jendez beteta dago eta denok berdintsuak gara. Musika entzuten da, hemen bai behintzat, eta Metronomo kantua entzutean badakizu ia bukatu dela dena, eta berriz entzuteko gogoia izango duzu. Konpaktoari atzera emango diozu, hori hemen egin daitekeelako, pelikula batean bezala. Eta egon, eta dena luzatu ez dakit zer bezala.

Vaya puta crítica. Dana literatura da eta... Fijo... Aldizkaria itxi, txamarrak hartu eta mahaitik altxa dira ia zaratarik gabe.



La Buena Vida. "Panorama" 1999. siesta.

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416



INMOBILIARIA



BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323



Ene Jesus! Nork pentsatuko luke hor Itzurungo hondartzan orain urte dexente eguzkia hartzen ari zen mutil buruhaundi hori, bai, eskuin aldean kiñateko bat egiten ari zaigun mutil koaxkor buruhaundi hori, mende bukaerako trikitalaririk famatuena bihurtuko zela. Zer, ez dakizula nor den? Ea, mesedez, atzeratutako Baleikeak begirutzen hasi eta uda honetan Zumaian kontzertu bat emango duen musikari bat dela konturatuko zarete. Nor da? Bost arte kontatuko dut. Bat, bi, hiru...



TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta **Asier Urbieta Bakedano**entzat izan da. Berak, Mikel Berastegi, Amaia Uranga, Arantxa Urkidi, Xabier Uranga eta Josu Garateren izenak asmatu zituen.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa nork eramaten duen!!!



Zein da goian azaltzen den trikitalariaren izena?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure hirugarren buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, ekainaren 28a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI
Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 0 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 96 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
- mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Krazi zelaien mantenimendua
Txostenak -
aholkularitza teknikoak.
Balarazioak



TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

motxian hil!



zein: Vicente Royo (semea)
zer: Edari banatzailea
Nola: Gatxi

Alkohola droga bada, hi gamelu bat haiz.
Ez, bere eliztarrak ongi zaintzen dituen apaiza naiz.

Hiri zenbat kostatzen zaik zerbeza bat?
Zallan 100 pezeta. Mozkor ederrak harra-
patzen dizkiat, hurrengo eguneko ondokoa
kenduz gero.

Royo, hiri rolloa gustatzen al zaik?
Ez nauk gehiegi enrollatzen.

**Piraugistak ahate samarrak zaretela diote,
baldarrak alegia?**
Bai, baina urrezko mokoa dugu.

Errioxar euskalduna edo euskaldun errioxarra?
Euskaldun errioxarra.

Malena tango izena omen da. Mariana?
Mariana basapizti izena da.

**Rosarion katuak uyuyuyuy egiten du. Nola
egiten du Marianak?**
Miau, miau.

**Kamioia hartzen duzunean herria dardarka
hasten da.**
Bai, Guardia Zibilarena dirudielako.

Nik erlojua galdu dut, baina batzuek Patrola.
Jainkoaren bideak ugari dira, eta nik ez ditut
guztiak ezagutzen.

Zein da Marcako zuzendaria?
Ez dakit, baina uste dut Miguel Lizaso izena
duela.

Egun osoa edariak banatzen...
Egarrituta eta oker-oker eginda amaitzen duzu.

Zer ikusten duzu etorkizunean?
Ez dut ezer ikusten, nahiago dut ez begiratu.

**Zer ikusirik ba al dute zerbezak eta ferre-
teriek?**
Zerbezak burdin asko duela, baina astelehe-
netan bakarrik eginten du efektua.

agurrak

Epiolo: Amaia, Igor... hau
da goxamena Zumaiaiko
instian ikastea eh? Eta ez
dituztelako beste batzuk
aipatzen.

Klaseko pelotera

Epiolo todo bolumen!!
Orain txokoa jun
beharrian panderua
jotzea juten al haiz?
Klaseko txoliña!

Tomas!! Todoterreno
atriskynante... alias:
"Pajero"

For las Tomenos

Belmon eta Alazne

Belmon ze...
A LASne KAIDAS

Goxo, goxo
muxu, muxu
plasta, plasta
erori nahian
A LAS KAIDAS

Jaione, hemezortzi urte
berriz ere? Ez dugula
sinisten!!! hala ere
zorionak eta jarraitu beti
hain pinpirin.
Kafe-tertuliazaleak

 **Zerbitzu Ofiziala**
ZUMAIA MOTOR
Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

ZALLA
Taberna - Erretegia
* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak
San Pedro, 4 Tel. 862387

TXOKO TABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

ARozTEGIA
Urola 2000, s.l.
*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa
Basusta bidea z/g Tel. 143505


xirula
Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika
Erribera kalea z/g Tel. 861705

1999/2000 ikasturtea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produksioa
- ▲ Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa



Makina Erremintaren Institutua
San Roke auzoa, 1
20870 - Elgoibar
Tel. 943 74 41 32
E-posta: amaia@fmh.es

Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.



ERROTA



OPIL OKINDEGIAT

*era fuztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO




Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA